

12016ko martxoaren 15eko prentsa oharra

Autobus elektrikoen Europako fabrikatzaile talde batek karga irekiko interfazea adostu dute

Irizar, Solaris, VDL eta Volvo autobus elektrikoen fabrikatzaile europarrak akordio batera iritsi dira autobus elektriko guztien operagarritasuna bermatzeko. ABB, Heliox eta Siemens egindako kargatzeko azpiegitura baten bidez lortuko dute hori. Helburua da autobus elektrikoen eta kargatzeko azpiegituren artean interfaze irekia ziurtatzea, eta orobat, ibilgailu hauentzako sistemak txertatzea Europako hirietan.

Europar garraio publikoen komunitatea autobus elektrikoentzat prestatzen ari da eta estandarizazio jarduerak dagoeneko martxan daude Europako erakundearen (CEN-CENELEC) eta estandarizaziorako munduko erakundearen (ISO/IEC) bidez. Aurreikusten da Europako estandarrak 2019an ezarriko direla, eta nazioartekoak, berriz, 2020rako espero dira.

Dena dela, Europako hiri asko dagoeneko ari dira autobus elektrikoen sistemak ezartzen. Hiri horien beharrei erantzuteko Autobus elektrikoen Europako fabrikatzaile Irizar, Solaris, VDL eta Volkok estrategia irek, garden eta borondatezkoa abiatu dute birkargarako sistemen hornitzaile diren ABB, Heliox eta Siemensekin batera. Interfaze komun eta gogokoena merkatuko parte-hartzaile guztientzat egongo dira irekita eta autobus elektrikoetan erabiliko dira aukerako karga deitutakoak (karga azkarra geltokietan) eta autobus elektrikoen gaueko kargak egiteko. Taldeak konpromisoa hartu du Europako estandarizazio ekintzetan buru-belarri jarduteko eta CEN/CENELEC eta ISO/IECekin esperientziak partekatzeko. Helburua da autobus elektrikoen sistementzat estandar europar komuna ezartzea.

Lortu nahi da hiriei autobus elektrikoen sistemetara igarotzen laguntzea fidagarritasuna eta autobus eta karga sistemen marken arteko bateragarritasuna bermatzeko. Beste autobus fabrikatzaileei eta birkarga sistemen hornitzaileei gonbita egin zaie elkarlan honetara bil daitezen.

Aukerako kargari dagokionez, sistemak kontaktu automatikoa du pantografo bidez eta haririk gabeko komunikazio, kontaktu plaka eta azpiegitura ekipamendu bidez, zeinak ibilgailua pantografo batekin konektatzen baitu automatikoki. Gaueko karga egiten duten autobus elektrikoekin, berriz, ibilgailuak birkargatzeko sistema azkarra (CCS) erabiliko da, bai konexiorako bai komunikaziorako.

Informazio gehiagorako:

ABB, Linda Muilwijk, Salmenta eta marketin koordinatzailea +31 6 518 466 12

Heliox, Bob Bouhuijs, Automozio zuzendaria +31 6 285 11 393

Irizar, Ana Eceiza, Komunikazio arduraduna, +34 667 181 833

Siemens, Ellen Schramke, Komunikazioa eta Gobernua, +49 30 386 22370

Solaris, Mateusz Figaszewski, Harreman publikoen zuzendaria, +48 601 652 179

VDL, Marleen van Zeeland, Komunikazioa, +31 40 208 44

Volvo Buses, Helena Lind, Prentsarekiko harremanen arduraduna, +46 31 323 62 57

